

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Museoaren “Adanen ondorengoak” margolana Segovian, Gizakiaren Aroak fundazioaren erakusketaren XXIII. edizioan

Olio-pintura hori "Reconciliare" aldi baterako erakusketan egongo da ikusgai, 2017ko apirilaren 24tik azaroaren 12ra

Asteazkena, 2017.eko apirilak 19

Nafarroako Museoak Gizakiaren Aroak Fundazioari (Fundacion de las Edades del Hombre) laga dio Jacob Bouttats artista flandriarrak 1676-1700 inguruan margotutako Genesiaren zikloko hamabi margolanetako bat. *Adanen ondorengoak* irudikatzen duen margolana, hain zuzen ere, kobre gainean margotutako olio-pintura.



Jacob Bouttats artistaren “Adanen ondorengoak”.

Apirilaren 10ean, astelehena, eraman zuten Nafarroako Museoko 3.1 aretotik, eta asteartean, hilak 11, Cuellarreko (Segovia) San Andres elizan jarri zuten, Kulturako Zuzendaritza Nagusiko zaharberritzaile bat bertan zela. Olio-pintura hori “Reconciliare” aldi baterako erakusketan egongo da ikusgai, 2017ko apirilaren 24tik azaroaren 12ra.

“Reconciliare” erakusketaren helburua da plastikoki irudikatzea gure munduak adiskidetzeko duen beharra, begirada positibo eta errealista batetik; begirada hori ez da iraganean geratzen, aitzitik, gaur egungo gizartera ekartzen du kontakizuna.

Nafarroako Museoak lagatako lanak Adan eta Evaren ondorengoei buruz hitz egiten duen Genesiaren pasartea (5.4) irudikatzen du. Adan eta Eva ageri dira aurrean, seme-alaba mordoaz inguratuta. Familia bere etxean dago, mahai baten inguruan, otordua hasi baino lehen otoitz egiten. Atzerago beste pasarte bat ikus dezakegu: emakume bat janaria ematen ari zaio eskale bati. Egileak, Holandako XVII. mendeko eskolan ohikoa denez, zertzelada zehatz eta xehatuz tratatzen ditu arkitekturaren, landareen eta zuhaitzen xehetasunak, eta paisaien hondo argitsuak. Jatorrizko markoa dauka.

1961. urtean iritsi zen Genesiaren zikloa Nafarroako Museora. Mesedetako Ordenaren Kapitulu Orokorreko jeneral Fray Sebastian de

Velasco iruindarrak, hil zenean, hiriko Mesedetako komentuari –dagoeneko desagertu zen komentu hori– egindako dohaintzaren bitartez iritsi zen Iruñera; komentu horretako elizan lurperatu zuten Velasco, 1682ko uztailaren 25ean. 1836an, komentuaren desamortizazioaren ondoren, Gobernu Zibilaren esku geratu ziren margolanak, 1868an Nafarroako Monumentuen Batzorde Probintzialak erreklamatu zizkionera arte, egin asmo zuen Museora eramateko. Museora eraman aurretik, Nafarroako korridore nagusiaren apaingarri erabili zituzten, eta Nafarroako Errege Artxibo Orokorrean biltegiatuta egon ziren denboraaldi batez.